



ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA INDUSTRIAN ETA ZERBITZUETAN



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSALAN ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita bidea, z/g (Basatxu mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94.403.21.90
Faxa: 94.403.21.00
E-posta: osalansc@ej-gv.es

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

Jose Atxotegi, 1 (Helbide berria)
01009 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945.01.68.00
Faxa: 945.01.68.01
E-posta: osalancatga@ej-gv.es

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo bidea z/g
20012 Donostia
Tel.: 943.02.32.62
Faxa: 943.02.32.51
E-posta: osalancatdo@ej-gv.es

BIZKAIAKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita bidea, z/g (Basatxu mendia)
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94.403.21.79
Faxa: 94.403.21.07
E-posta: osalancatba@ej-gv.es



OSALAN
Laneko Seguratasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA INDUSTRIAN ETA ZERBITZUETAN



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Argitaraldia: 2015eko maiatza

Ale kopurua: 1000 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Fotokonposaketa: Esda Fotocomposición y Fotomecánica, S.L.

Inprimaketa: Esda Fotocomposición y Fotomecánica, S.L.

L.G.: BI-727/2015





■ HELBURUA


Azpikontratazioa zerbitzu gero eta hedatuagoa da eta arazoak sor ditzake hainbat enpresa lan-zentro berean aritzen baitira aldi berean lanean. ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA beharrezkoa da zeregin bateraezinak dituzten enpresa desberdinen arteko elkarreraginak sor ditzakeen arriskuei aurre egiteko.

■ DEFINIZIOAK

- **Lan-zentroa edo lantokia:**
Eraikitako edo eraiki gabeko edozein eremu; bertan egon behar dute edo bertara joan behar dute langileek, beren lana aurrera eramatera.
- **Lantokiaren enpresaburu titularra:**
Lantokia baliagarri jartzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen pertsona.
- **Enpresaburu nagusia:**
Beste enpresa batzuekin kontratatzen edo azpikontratitzen ditu haren jardueraren lanak edo zerbitzuak egitea, eta lantokian bertan egiten dira. Aldi berean, enpresa titularra izan daiteke.
- **Kontratista:**
Titularraren eta/edo nagusiaren aurrean, lanak edo lanen zati bat bere edo besteren bitartekoekin gauzatzea kontratu bidez bere gain hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- **Azpikontratista:**
Kontratataren aurrean, lanak edo lanen zati bat bere edo besteren bitartekoekin gauzatzea kontratu bidez bere gain hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- **Prebentzio-jardueren koordinatzailea:**
Aldibereko enpresen egoeretan lehenetsitako koordinazio-bitartekoa.









LANGILE AUTONOMOAK.

BETEBEHARRAK:

- Gainerakoei eragin diezaieketen arriskuen berri ematea, idatziz, larriak edo oso larriak izan badaitezke. Horretarako, bere jardueraren arriskuen ebaluazioa egin beharko du.
- Titularrarengandik jasotako informazioa kontuan hartu beharko du, hala nola bere aginduak bete, eta informazio eta jarraibide horiek guztiak bere kargura dauden langileei helarazi. Informazioa eta jarraibideak bereganatzeko, beharbada prestakuntza eman beharko zaio.

ESKUBIDEAK:

- Gainerakoei eragindako arriskuen eta larrialdi-egoeren gaineko informazioa jasotzekoa, bere kargura dauden langileei helarazi beharko diena. Baliteke LAPeko prestakuntza behar izatea informazioa ulertzeko.
- Enpresaburu titularrak lan-zentroko arriskuen berri eman beharko du.
- Enpresaburu nagusiak LAPeko arauak betetzen direla zaindu beharko du.

KOORDINAZIO BITARTEKOAK.

KOORDINAZIO BITARTEKO IZANGO DIRA HAUEK:

- Informazio-trukea aldibereko enpresen artean.
- Aldian behingo bilerak aldibereko enpresekin edo segurtasun-batzordeekin edo enpresaburuen eta prebentzioko ordezkariekin.
- Jarraibideak ematea.
- Lan-zentroko arriskuak prebenitzeko neurri sorta ezartzea.
- Aldibereko enpresek prebentzio-bitartekoak edukitzea.
- Enpresa-jardueren koordinatzaile bat edo gehiago izendatzea.

- Horiek ezartzeko ekimena, hasiera batean, titularrari dagokio. Hala ezin denean, nagusiari.
- Aldibereko enpresek ezarriko dituzte jarduerak hastean.
- Bitartekoak behar den guztietan eguneratuko dira.
- Bitarteko egokiena kasuan kasuko jardueraren konplexutasunaren eta arriskuen araberakoa izango da.
- Enpresaburuek bere langileei jakinarazi beharko diete zein koordinazio-bitarteko ezarri diren.



PREBENTZIO JARDUEREN KOORDINATZAILEA

KOORDINAZIO ARDURADUNEN IZENDAPENA LEHENETSIKO DA HONAKO BALDINTZA HAUETAKO BI EDO GEHIAGO BETETZEN BADIRA.

- Lan-zentroan legez arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak egiten badira.
- Zaila bada arrisku larriak edo oso larriak eragin ditzaketen jardueren elkarreragina kontrolatzea.
- Zaila bada egiteko bateraezinen aldiberekotasuna ekiditea.
- Zaila bada jarduerak koordinatzea.

LAN ZENTROKO ENPRESABURU TITULARRAK IZENDATZEN DU ETA GUTXIENEZ MAILA ERTAINA IZAN BEHARKO DU LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN. HAUETAKO BAT IZAN AHALKO DA:

- Prebentzio-jarduerak garatzeko izendatutako langile bat edo gehiago.
- Enpresako edo enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzuko partaide bat edo batzuk.
- Beharrezko ezagutzaren, kualifikazioaren eta esperientziaren jabe den langile bat edo gehiago.

HONAKO EGITEKO HAUEK IZANGO DITUZTE:

- Koordinazio-helburuak betetzea.
- Partekatu beharreko informazioa partekatzeko bide izatea.
- Enpresaburu titularrak gomendatutako beste edozein.

HONAKO ETARAKO DAGO GAITUTA:

- Partekatu beharreko informazioa eta egitekoak gauzatzeko beharrezkoa gerta daitekeen zeinahi prebentzio-agiri ezagutzea.
- Lantoki guztietarako sarbidea izatea.
- Beharrezko jarraibideak ematea.
- Prebentzio-neurriak proposatzea.

Lan-zentroan egon beharko da bere egitekoa betetzeko behar duen denbora guztian.

Beste bitarteko batzuekin ordezkatu ahalko da, baldin eta arrazoi tekniko eta antolakuntzako ondoz bada eta koordinazio-helburuen betearazpena bermatuta badago.

Aldibereko enpresen prebentzio-arduradunak bertan egotea behar bada, koordinatzailea bertaratu ahalko da haren ordezkari, baina gutxienez prestakuntza-maila ertaina izan beharko du LAPen.



ABLE BATEKO LAGATAKO LANGILEEI BIDERATUTAKO ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA.

KASU HONETAN, KOORDINAZIOAK HAINBAT BEREZITASUN DITU, LAGATA DIHARDUEN LANGILEAREN JARDUERAK EZ DAUDELAKO BERE ENPRESAREN KONTROLPEAN, LAGATA DAGOEN ENPRESAREN ESKU BAIZIK.

Langile horiek eta enpresa erabiltzaileko gainerako langileek segurtasun eta osasun maila berdina izan beharko dute.

ENPRESA ERABILTZAILEAREN ETA ABLE-AREN BETEBEHARRAK JARDUERARI EKIN AURRETIK:

- Enpresa erabiltzaileak egin beharko du lanpostuaren arriskuen ebaluazioa, informazio hori ABLEari eskainiz.
- ABLEak informazio hori eman beharko dio langileari, eta prestakuntzako eta osasuna zaintzeko betebeharrak beteko ditu, bete ditueneko egiaztagiriak aurkeztuta.
- Enpresa erabiltzaileak bermatu beharko du langileak prestakuntza eta informazioa jaso duela eta gaitasun medikoa duela. Zentroko eta lanpostuko arriskuen eta larrialdietarako neurrien berri emango dio langileari. Ordezkariei eta prebentzio-erakundeari ezarpenaren berri emango die.

ENPRESA ERABILTZAILEAREN ETA ABLE-AREN BETEBEHARRAK JARDUERA GAUZATU BITARTEAN:

- Enpresa erabiltzaileak segurtasun- eta osasun-maila bera eskainiko dio langileari, bere konturako langileei bestekoa.
- ABLEa arduratuko da aldian behingo osasun-azterketaz, lanpostuko arriskuen ebaluazioa aintzat hartuta, eta gertatutako laneko istripuen berri emango dio lan-agintaritzari, enpresa erabiltzailearekin batera jardunez kausen gaineko ikerketan.



ARAUDI APLIKAGARRIA ETA BIBLIOGRAFIA.

- Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hori aldatzeko abenduaren 22ko 25/2009 Legean xedatutakoa beteko da.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuari buruzko Erregelamendua onartzekoa, eta martxoaren 19ko 337/2010 Errege Dekretuaren bidez eginiko aldaketak.
- 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzko lege-esparrua aldatzen duena.
- 14/1994 Legea, ekainaren 1ekoa, aldi baterako laneko enpresak arautzen dituen.
- 216/1999 Errege Dekretua, otsailaren 5ekoa, aldi baterako lan-enpresetan lan egiten duten langileen gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- Martxoaren 23ko 171/2004 Errege Dekretua, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- LSHINren 918 prebentzio-ohar teknikoa, enpresa-jardueri buruzkoa (I).
- LSHINren 919 prebentzio-ohar teknikoa, enpresa-jardueri buruzkoa (II).
- Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioa, 2003ko otsailaren 18koa, langile autonomoen laneko osasunaren eta segurtasunaren babesa hobetzekoa (2003/134/EB).
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Nazionaleko lantaldearen gomendioa Langile Autonomoei eta Prebentzio Jarduerak Koordinatzeari buruz.